

## EUSKO LEGEBILTZARREKO ERREDAKTOREAK. EUSKO LEGEBILTZARRA

EUSKO LEGEBILTZARREKO ERREDAKZIOTIK  
EGINDAKO HIZKUNTZ KONTSULTA:  
GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUN-TXOSTENA

Gasteizen, 1997ko abenduaren 2an.

Agur t'erdi:

Zuen gutuna jaso ondoren Gramatika batzordearen azaroko bilkuran eztabaidatu ditugu han jasotzen zenituzten zalantzak. Gatozen, bada, besterik gabe ondorengo lerrootan laburbiltzera bilera hartan Gramatika batzordeak erabakitakoa.

Gutuneko 1, 2, 3 eta 4. puntuen artean ezin esan genezake horietako bat ere gaitzestekoa denik. Izatekotan ere, hirugarrena (*gauerdiko ordu bata da*) izango litzateke zalantzarriena. Gramatikalki eragozpenik ez lukeen arren, ohiturari jarraituz ez deritzogu oso erabilgarria egitura horri. 3 eta 4 egiturez den bezanbatean, Gramatika batzordeak beste proposamen bat egin nahi luke, gure ustetan erabiliena: *Goizeko ordu bata*.

Gutuneko hurrengo galderari (“00:30 *gauerditan* ... zuzen dago? Bide beretik, 12:30 ‘eguerditan’ irakurriko genuke”) erantzunez, jakinarazi nahi dizuegu seguruenik errata baten aurrean gaudela; ez zela hori arautzat eman nahi izan zena. Argi dago aurreko perpausean esandakotik (“00:00, *gaueko nahiz gauerdiko hamabiak irakurriko dugu*”) ondorioztatzen dena ez dela 00:30. *gauerditan edo gaueko hamabi eta erdietan*, honako beste hau baizik: *gauerdiko edo gaueko hamabi eta erdietan*. Beraz, -ko atzizkia behar zuen lekuan -tan eman da ezustean Euskaltzaindiaren arauan.

5, 6, 7 eta 8. galderei dagokienean, pluraleko komuntzaduraren aldeko agertzen da Gramatika batzordea. Beraz, *Ordu bata eta bat dira, ordu bata eta minutu bat dira, ordu bata eta bi dira* eta *ordu bata eta bi minutu dira*. Horri gaineratuz, batzordeak jakinarazi nahi du *ordu bata eta (minutu) bat dira* bezalakoak ez direla erabili izan euskaraz (ordua oso zehazki eman nahi ez dugunean behintzat —lasterketaren batean edo), eta bai *ordu bata pasea da* edo *ordu bata da* formak.

8. adibidearen ondorengo galderari (“zilegi al da ‘minutu’ gehitzea?”), baietz erantzungo genioke, baina ezinbestean bakarrik erabiltzekoa dela gai-

neratuz. Erabilera oso formalean onargarria litzateke, baina ez da euskaraz erabiltzen den forma normalena edo arruntena.

*Minutu* hitza erabiltzekotan, zuek ematen duzuen bezala erabili beharko litzatekeela iruditzen zaigu, *ordu bata eta hiru minutuan*, *ordu bata eta hiru minututik*, alegia. *Seiak eta bost minututan* bezalakoak ez lirateke *Zer ordutan?* galderaren erantzun. Zerbait izatekotan, iraupena-edo adierazteko egiturak lirateke (*bi ordutan egon naiz Mikelen zain*, adibidez).

9 eta 10. adibideetan aditzaren pluraleko komunztadura litzateke egokiena gure ustetan.

12. puntuan ematen dituzuen formak (*09.50ean*, *9.51n*) onargarriak lirateke; ez, ordea, ondorengo galderan ematen duzuen: *9.50ean* litzateke hobes-teko forma eta ez, *9.50etan*.

Zuen zalantzak argi geratu direlako esperantzan, hurrengo batera arte.

Jesus Mari Makazaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria